

**2008KO APIRILAREN 15EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hamabosta

HILABETEA: Apirila

URTEA: Bi mila eta zortzi

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Fernando Boada González

Jon Kortaberria Lasa

Julio Herreros Serna

ETORRI GABEAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Begoña Lasa Royuela

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2008ko martxoaren 18ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

2.- KONTRATAZIOA

a) Murumendi ikastetxe parean espaloiak birmoldatzeko obrak lehiaketa bidez kontratatzeke baldintza plegua onartzea.

Bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

“**Lehenik.** Murumendi ikastetxe parean espaloiak birmoldatzeko obren proiektua eta baldintza plegua onartzea..

Bigarren.- Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeke deialdi publikoa egitea.

1.- Xedea: Murumendi ikastetxe parean espaloiak birmoldatzeko obrak kontratatzea.

2.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa irekia eta prozedura arrunta.

3.- Lizitazio prezioa: 82.462,14 €, BEZ barne.

4.- Enpresa sailkapena: ez da eskatzen.

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin-behineko bermea: 1.649,24 €

7.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

8.- Egikaritze epea: 2 hilabete.

9.- Proposamen eredua: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

10.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 26 egunetan.

11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitzaileek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

b) Beasaingo kale asfaltaketa obrak lehiaketa bidez kontratatzeako proiektua eta baldintza plegua onartzea.

Proposatzen da Beasaingo kale asfaltaketa burutzeko obrak lehiaketa bidez kontratatzea, premiazko prozedura erabiliz. Premiazko prozedura erabiltzeko arrazoi artean aipatzen dira, zorua oso hondatuta dagoenez zuloak izateko arriskua dagoela eta egoera honek istripuak ekar ditzakeela. Aldi berean aipatzen da, osasun zentroa zegoen parean berehala biribilgunea egiteko obrak hasi behar direla eta bi lanak batera izaten badira trafiko agenteek ezin izango dutela bi obren ondorioz sortzen diren beharrei erantzun.

Idazkariak esan du, bere ustetan ez dela egokia premiazko prozedura erabiltzea, urtero aurreikusi eta egiten den obra izanda. Lehendik ere ezagutzen zen bide asfaltaketa burutu behar zela eta ez da izan inolako arrazoirik orain arte lehiaketa ez prestatzeko.

Julio Herreros (PP) jauna proposamenaren alde azaldu da.

Jon Kortaberria (EA) jaunak, adierazi du bera abstenitu egingo dela, arrazoiak alde batekoak eta bestelakoak dituelako.

Fernando Boada jaunak (PSE-EE/PSOE) adierazi du bera ere ez dagoela ados premiazko prozedura erabiltzearekin, horretarako arrazoirik ez dagoelako. Adibide modura, Igartzako Jauregia konpontzeko obra jarri du, esanez, orduan ere prozedura hori erabili zela eta aldiz, oraindik ez direla obrak hasi.

Alkatea jaunak ere proposamenaren alde azaldu da.

Jon Kortaberria (EA) jaunak, esan du badakiela bere jarrerarekin, gaia aurrera aterako dela. Dena dela eskatu du berriro ere horrelakoak ez errepikatzea.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 2 (EAJ,PP)
Aurkako botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 1 (EA)

Horren ondorioz, gehiengo soilarekin ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik**. Beasaingo kale asfaltaketaren proiektua eta baldintza plegua onartzea..

Bigarren.-, Aipatutako obrak lehiaketa bidez kontratatzeko deialdi publikoa egitea.

1.- Xedea: Beasaingo kale asfaltaketaren obrak kontratatzea.

2.- Kontratatzeko era eta prozedura: Lehiaketa irekia eta premiazko prozedura.

3.- Licitazio prezioa: 120.000, 00 €, BEZ barne.

4.- Enpresa sailkapena: C taldea, 4 azpitaldea, b maila.

5.- Espedientea: baldintza plegu administratibo eta teknikoak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

6.- Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

7.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

8.- Egikaritze epea: 2aste.

9.- Proposamen eredia: Baldintza Administratiboen pleguaren eranskinean azaltzen dena.

10.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 13 egunetan.

11.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: Pliken irekitzea Beasaingo Udaletxean egingo da, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lanegunean 13:00etan. Larunbata tokatuko balitz, hurrengo lanegunera pasatuko da.

12.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek Baldintza Administratiboen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

3.- INFORMAZIOA. Hainbat gaiei buruzko informazioa.

EUSKERA

Euskara arloan Alkateak bi informazio hauek eman ditu:

- Liburuxka. Beasainen hitz egiteko erari buruzko liburuxka argitaratu da.
- Udararen udaleku-zerbitzua eskaintzeko prozesua martxan jarri da.

FERIETAKO SALTZAILEAK

Hiru urtetarako kontratua egin da, lehen zegoenarekiko %15eko igoerarekin. Kontsumo prezioen indizea %4,5a igotzen bada kontratu hori errebisatu egingo litzateke.

Jadanik jaietarako egitaraua itxita dago.

UDAL ADIERAZLEAK

Foru Aldundiak adierazleekiko hobekuntza plana martxa jarri du. Udalean egitasmo berri horrekin zerbitzu saila hasiko da eta jarraian kultura arloak parte hartuko du.

FUNTZIONARIO TXARTELA

Udaletxeko langileei funtzionario txartela banatuko zaie.

Eta tratatzeko besterik ezean, goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.